

KOSTU EGITURA

Zeintzuk dira proiektuaren kostu garrantzitsuenak?



Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hasiera batetik ohartu behar gara ere kostu finko zein aldakorrek ordaindu beharko ditugula proiektua lantzen jarduten ari garen bitartean. Kostu-finkoei erreparatu ezker, alokatutako lokala hilero ordaindu beharko dugu eta gutxi gora behera ordaintzeko prest gauden aurrekontua 400€-koa izango da. Ez da beharrezkoa gure lokala bereziki handia izatea, izan ere 4 pertsonen artean lanean jarduteko ez dugu oso espazio handia behar, beraz, eremu txiki eta eroso batekin moldatuko ginateke.

Bestalde, gure hasierako kostu handienetako bat gure ordenagailu-inprimagailu sistema sortzean egongo da. Argi dago, ordenagailuak egin aurretik ere, ikerketa bat egin beharko dugula. Ordenagailuak nola sortu pentsatu beharko da, gure ideiak funtziona dezan zein algoritmo, software etab. erabili ere erabaki beharko da. Horretarako injenieritza lanetan aritzen diren laguntzaileak ere beharko ditugu, eta hauei ere ordaindu beharko diegu.



Kostu aldakorrei dagokienez, ordenagailuen kostua da aipatzekoa. Ordenagailu bakoitza ekoizteagatik gutxi gorabehera 500€ ordaintzea espero dugu. Ondoren gure salmenta prezioa 800€ ingurukoa izango denez, irabazietarako eta epe luzera etekinietarako margina edukitzea espero dugu.

Ondorioztatzeko, gure bi kostu nagusienak ordenagailuaren ekoizpen eta logistikan izango direla aurreikusten dugu.

Dena dela, behin gure ordenagailuak sortuta eta merkaturatuta daudela arazoak ere gerta daitezke. Ordenagailuren batek ongi ez funtzionatzea adibidez. Ezusteko horiek ere kostu bat edukiko dute, eta horiei aurre egiteko prest egon beharko gara, marka gisa ere irudi on bat eman nahi baitugu.